

Herri Aldizkaria

# otomot

2006ko apirila 116. alea



## Urretxu eta Zumarragako auzoak eta auzotarrak

KOLABORAZIOA: JOSUNE ZARANDONA  
ELKARRIZKETA: INIXIO IZAGIRRE  
IZERDI PATSETAN: MITXEL BADIOLA



# Goierrri bus



Tel. 943 72 52 50 • Fax 943 72 58 70 • E-mail: goierribus@euskalnet.net  
[www.goierribus.com](http://www.goierribus.com)

## Eitzako tabernariok San Isidro jai zorientsuak opa dizkizuegu

**EITZA  
KAFETEGIA**

Txibiarroetan espezialitatea

☎ 943 72 35 57



**BORDATXO  
TABERNA**

**Karta  
taberna**

### LARUNBATA 6

16:00etan: XXVIII. Mus Txapelketa. Izen ematea Eitza Tabernan.

### OSTIRALA 12

18:00etan: Txokolatada, buruhandiak eta haur jolasak.

19:00etan Frontenis txapelketako finalak.

19:00etan: Jai batzordearen txosnaren irikiera. Poteo herrikoia trikitixak girotuta.

21:30etan: Afari herrikoia. Trikitixa izango da giroa alaitzen eta bakarrizketak ere egongo dira.

23:00etan Rock kontzertua, Txinaski eta Repugnancia Social taldeekin.

### LARUNBATA 13

12:30etan: XXVI. Toka txapelketa.

13:00etan: Poteoa trikitilariekin batera.

16:30etan: XXIII Kross herrikoia.

17:00etan: Pilota txapelketako finalak.

19:00etan: Herri kirol apustua.

19:30etan: Trikitilariekin kalejira.

23:30etan: Dantzaldia, Tukan orkestrarekin.

00:00etan: Ehunzango batukada.

### IGANDEA 14

10:00etan: Antzinako Ama txistulariak eta Zuhaitzaren soinua txalaparta.

11:00etan: Meza nagusia Goiargi abesbatzarekin.

12:00etan: Jira-Bira eskulturaren inaugurazio ekitaldia.

12:30etan: Zumarragako Musika Bandaren kalejira.

13:00etan: Irrintzi dantza taldearen saioa.

16:00etan: Plater tiraketa.

18:30etan: Herri kirolak.

19:00etan: Trikitixarekin kalejira.

19:30etan: Kale antzerkia Karmakros taldearen eskutik.

22:30etan: Jotak Alma Navarra taldearekin.

Oharra: goizean zehar artisauen eta sendabelarren erakusketa egongo dira. Arratsaldean, berriz, Dantzari Txiki eguna izango da frontoian.

### ASTELEHENA 15

11:00etan: Meza Nagusia. Ondoren, auzoko jubilatuei hamaiketako eskainiko zaie Irika elkartearen.

18:00etan: Haur jolasak eta Gorritiren animaliak.

19:00etan: Trikitilariak.



# ARGAZKI ZAHARRA



Hona hemen Urretxuko neska lagun talde bati duela urte dezente ateratako argazkia. Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Marija Dolores Zubizarreta, Ana Mari Zabaleta eta Maria Rosario Bengoetxea. Erdiko ilaran: Rosarito Belaustegi, Rosarito Alkorta, Modesta Bermejo, Trini Ortiz, Manolita Murua, Dolores Maiztegi eta Carmen Lopez. Beheko ilaran: Tere Berriotxo, Mariani Esnaola, Rufina Olazabal, Justa Perez eta Mari Tere Elgarresta.

*Montajes e Instalaciones Electricas*  
**HERCE**  
 Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
 Enpresa mantenua  
 Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
 Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
 Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

**TABERNA**

*Guireta*  
**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
 ZUMARRAGA

*belar-zain*

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
 Mediku-homeopata kontsulta  
 Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Denda alokatu edo saltzen da Antzuolan Martxan dagoen argazkidenda-bitxitegia**

**943 78 70 66**  
**635 757 271**

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte.  
 Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.

**Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.

**Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**BIONA**


**AROTEGIA**

**Altzariak neurria**

☎ eta faxa: **72 02 55**  
 Erratzu, z/g URRETXU



# KLIK ETA KLIK



2006ko apirila



# KLIK ETA KLIK



Ale honetako argazkiak Joxe Llorentek atera ditu.



## Urretxu eta Zumarragak

Duela ez horrenbeste urte Urretxu eta Zumarraga herri txiki samarrak ziren. Joan den mendeko erdialdean herriko lantegietara etorkin pila etorri zen eta orduan hazi ziren nabarmen. Etxebizitza premia izugarria zegoen eta milaka egin ziren 1950eko eta 1960ko hamarkadetan. Auzo asko eta asko garai hartakoak dira edo

orduan hartu zuten egun duten itxura: Aparizio, Mundo Mejor, San Martin, Etxeberri, Leturia eta Legazpi, besteak beste. Batzuk herrigunearn, besteak aparte, batzuek inguruan porlana besterik ez dutela, besteak lorategi ederrekin... Bizilagun batzuekin hitz egiten izan gara euren auzoei buruz.

### Ramon Yurrebaso eta Ines Olaizola: "San Martin auzo onena da, aparkalekuei dagokienez"

Ramon Yurrebaso eta Ines Olaizola ezkondu eta alde bate-tik bestera ibili ziren San Martin auzoko etxeak bukatu zituzten arte: lehenengo Iparragirre kaleko lehenengoan bizi izan ziren eta gero Kalebarrenen. 1963an joan ziren San Martin auzoko zortzigarren atarira bizitzera. Ordurako, Bejardiren etxea eginda zegoen: pilotalekutik gertuen dagoena. Gainontzeko guztiak beste kontratista batek egin zituen segidan.

Ramon Yurrebaso eta Ines Olaizoren esanetan, etxe arruntak dira. "Neurriz ondo daude eta buelta osoan kalera ematen dute. Argitasuna badugu. 178.000 pezetakoa zen gure etxearen prezioa, baina, tarimak-eta zirela, 200.000 pezeta ingurura igo zen. Orduan diru asko zen hori. Bost mila duro ordaindu genuen sarrerako eta teilatua eman ziotenean beste bost mila. Hamar bat urtetan ordaindu genuen gainontzekoa. Orbegozon lan egiten zuen jendeak-eta antzerako epean ordainduko zuen".

San Martin auzoan 14 atari eta 150 etxebizitza inguru daude. "Jende asko bizi ginen. Gu etorri ginenean denok gazteak ginen, baina gu zahartu egin gara eta gure umeek alde egin dute. Lehen ume pila ibiltzen zen jolasean. Orain badaude bikote gazte batzuk, baina gutxi. Hori gertatzen da beti: etxe berrietan bikote gazteak sartzen dira eta umeak egoten dira".



Auzora joandako gehienak kanpotarrak omen ziren. "Erdaldun gehiago etorri ziren. Guk ezkerre eta eskubira Avilako anaia-arrebak ditugu eta ederki moldatzen gara. Emaztea egunero joaten da paseatzera bizilagunarekin", dio Ramon Yurrebasok.

Urolako trenbidearen gertutasuna zen garai batean San Martin auzoaren ezaugarri nagusia. Izan ere, trenbideak herria zatitu egiten zuen eta San Martin auzokoak aparte uzten zituen. "Auzoarekin batera, trenbide gainetik zubia egin zen eta hori erabiltzen genuen Urretxu aldera joateko. Beldurrak jota egoten ginen, ume guztiak trenbide aldera joaten baitziren jolastera. Gero, paretan egin zuten jendeak trenbidea zeharkatzerik izan ez zezan, baina berehala zulatu zuten beste aldera pasatzeko. Gure semeak zapa-

ta guztiak puskatzen zituen paretan saltatzeko, zubia ez erabiltze-arren. Trena kendu zenean, zubia ere kendu egin zen eta dena bat egin zen".

Auzoak aldaketa nabarmena ezagutu du. "Duela urte gutxi egin zen berrikuntza handiena: lorategiak, argiteria... etxeen inguru guztia berritu zen. Lehenengoan aspaldi hemen bizitako gizon bat galduta zebilen, trenbidea non zegoen ez zekiela, geltokia ere aldatuta...".

Trena oztupo zen, baina auto jabeentzat paradisua bilakatu da auzoa. "Aparkalekuei dagokienez, herriko auzo onena da. Herri guztiko autoak hona ekartzen dituzte. Ostiral gauean-eta ez da giro hemen! Kanpoko jendeak ere ikasi du".

Ines Olaizolak kexa bakarra du. "Auzoko lorategiekin ez dira asko saiatzen. Loreak sartu beharko lituzketela uste dut, batere ez baitago: belarra eta zotzak besterik ez".

Bestelakoan, Ramon Yurrebasok San Martin Urretxuko auzorik egokiena dela uste du. "Herri erdian gaude eta, aldi berean, lasai. Bestalde, lehen esan duguna: betidanik albokoekin ondo moldatzen gara". Emaztea iritzi berekoa da. "Gustura bizi naiz toki honetan. Dena bertan dauka: plaza, eliza, udaletxea... Etxe hobea eduki daiteke, baina toki hobean ez. Hona etortzen den guztia gustura gelditzen da".



## o auzoei buruz solasean

### Juani Sanz eta Joxe Larrañaga: "Legazpi auzoko lorategiak bizilagunok egin genituen"

Legazpi auzuneak 50 urte bete ditu aurten, 1956an egin baitzen. Joxe Larrañaga eta Juani Sanz senar-emazteak hasiera-hasieratik bizi dira bere lorategi ederrengatik eta lasaitasunagatik ezaguna den auzo honetan.

Bikotea Piedad kalean bizi zen Legazpi auzunera joan aurretik, Joxe Larrañagaren gurasoekin. "Etxeak egin aurretik, futbol zelaia zegoen hemen. Artiz auzoa eginda zegoen, ordea. Ezkonda eta urtebetera etorri ginen hona, 28 eta 24 urte genituela", dio Joxe Larrañagak.

Etxebizitza horiek babes ofizialekoak ziren eta Larrañaga-Sanz bikoteak ez zuen zortetik izan zozketan, emazteak ondo oroitzen duen moduan. "Hiru talde zeuden: gudan parte hartu zutenena, preso ohiena eta gainontzekoona. Ez zitzaigun tokatu, baina Artiz Zumarragako alkateak eman zigun. Zazpi etxebizitza zituen hemen eta beheko solairua edo goikoa aukeran eman zigun. Goikoa aukeratu genuen. Etxebizitza hartu ahal izateko, senarra suhiltzaile egin behar izan zen. Udalarentzat lan egin behar izan zuen etxebizitza hartu izana justifikatzeko".

Hasieran zenbat ordaindu zuten ere oroitzen dute. "17.000 pezetako sarrera ordaindu genuen eta, gero, 20 urtetik gora eman genituen 200 pezeta inguruko errenta ordaintzen. Azkenean, 100.000 pezetatik gora ordaindu eta etxeen jabe egin ginen".

Lorategiak bizilagunek egin zituzten, euren etxeetara joan zirenean. "Zementua besterik ez zegoen. Kamioi bat bete lur ekarri genuen eta guztion artean bota genuen. Gero, urtetan, bizilagun



bakoitzak bere lana egin zuen: batzuek zuhaixkak moztu, besteek belarra... Egun zortzigarren atariko Carmen Zurutuza eta ni gara loreak jartzen ditugunak, geure poltsikotik gainera. Alkateari Udala lorategien kargu egitea eskatu diogu, baina dirurik ez dagoela esan digu. Zuhaixkak eta belarra, behintzat, Udalarentzat lan egiten duen enpresak moztzen ditu. Izan ere, gu zahartuta gaude dagoeneko. Iturri bat ere eskatu dugu, ura laugarren solairutik jaisi behar izaten baitut eta Carmenek hirugarrenetik", dio Juani Sanzek.

Lorategiez gain, etxebizitzetan konponketak ere egin behar izan zituzten sartu eta berehala. "Baldosa gorriak genituen, baina tonu desberdinetakoak. Gainera, asko pitzatuta zeuden. Bestalde, etxea sindikatuarena zenez, ez ziguten aldaketak egiten uzten. Etxe oso arruntak dira. Etorri eta gero sindikatuak danbor tabikeak egin behar izan zituen hezetasun handia zegoelako...".

Guztira 15 atari eta 112 etxebizitza daude Legazpi auzunean eta guztiak berehala saldu ziren. "Segituan bete ziren etxebizitza guztiak, baina hasiera-hasiera-

ko gutxi gaude dagoeneko. Euskaldun asko zegoen, baina beste toki askotatik etorritako jendea ere bai".

Garai batean auzoa herri txiki baten modukoa izan zen, premia asko zerbiztu asko bertan baitzizuten. "Janaridenda, ileapaindegia, arraindegia eta harategia izan ziren, baina orain bi ileapaindegi eta ingeles akademia besterik ez daude. Garai hartan Orbegozoren ekonomatoa besterik ez zegoen eta auzoetako dendek negozio ederra egiten zuten".

Bestelakoan, auzoko bizimodua ez omen da asko aldatu. "Bizilagunen arteko harremana beti izan da ona. Alderik handiena Orbegozon eman da: garai batean, langileak lanetik irteten zirenean, etxe aurretik prozesioa pasatzen zela zirudien. Bestelakoan, lehen ondo eta orain ere bai. Laugarren solairura oinez igo beharra da okerreana. Dena den, oraindik ere, nahiago dut nire etxebizitza beheko solairukoa baino", dio Juani Sanzek.

Larrañaga eta Sanz igogailudun etxebizitza baten truke soilik irtengo lirarteke Legazpi auzunetik. "Leiho eta balkoi guztiek kanpoaldera ematen dute eta sekulako bista ederrak ditugu. Gainera, ez dugu inongo zaratarik entzuten. Ezta festetan ere". Bertakoak ez diren askok ere estima handian dute auzo hau. "Hona gustura etorriko liratekeela esaten digute, auzo zoragarria dela. Izan ere, maiatzetik aurrera lorategiak oso politak egoten dira.

Loreen kontuan izan ezik, gainontzekoan Udalak auzoa ondo zaintzen omen du. "Argiteria ona dugu eta duela urte batzuk sarrera berritu zen, Artizera ematen duten eskailerak berritzea bakarrik falta da. Ez gara Udalaren lanaz kexu".



## Maria Isabel Urreaga: "Aparicion pozik bizi naiz, are gehiago ondoan denda dugunetik"

Jose Angel Zabaletak eta Alejandra Zabaletak Intxenea baserria eta inguruko lurak erosi zituzten ezkondu zirenean, duela 80 bat urte. 1950eko hamarkada bukaeran, Irimo enpresako nagusiak, Jose Luis Apariciok, Alejandra Zabaletarengana jo zuen eta euren baserriaren inguruan etorkin langileentzat etxeak egin nahi zituela esan zien. Zabaletak eskaintza onartu zuen eta 1960an Irimoko langile asko Aparicio auzo egin berrira joan zen bizitzera.

Maria Isabel Urreaga, Jose Angelen eta Alejandraren biloba, neska koxkorra zen oraindik, baina primeran gogoratzen du langileen etorrera. "Irimo lantegi handia zen. Hemengo etxebizitzetara etorkin asko etorri ziren, baina euskaldunak ere bai. Gero, asko herri erdira joan ziren, hemen alokairuan baitzeuden. Gainera, alargun gelditzen zirenak etxebizitza uztera behartuta zeuden. Beste langile bati ematen zitzaion. Enpresak duela 15 bat urte saldu zizkien etxebizitzak".

Intxeneakoen bizimodua zeharo aldatu zen langileak eta euren familiak heldu zirenean. "Apariciok etxeak egin aurretik, hemen baserri etxeak besterik ez zeuden: Kaminpe, Etxetxo, Kaseta, Mendiaraz etxea, Telleri... Dagoeneko auzo giroa genuen arren, aldaketa sekulakoa izan zen. Izan ere, garai hartan familia guztietan seme-alaba asko zeuden. Baserriko bizimodua galdu genuen, inguruan sekulako jende pila izatera pasatu baikin. Dena den, gure bizimodua eta etxebizitzetakoena ezberdina da. Neguan ez gara auzoan gertatzen denaz jabetzen ia. Gainontzekoengandik aparte, baina aldi berean gertu, bizi gara".

Aparicion bost atari eta 36 etxebizitza daude. "Garai batean ganbaretan ere bizi izan ziren. Pentsio moduko bat ere izan zen langileentzat". Atari bateko etxebizitzak handiagoak dira. "Bulego lanak egiten zituztenentzat, enkargatuentzat... egin ziren. Praktikantea ere horietako batean bizi izan zen. Txikiak 55 metro koadrokoak dira eta handiek 80 bat dituzte".

Auzoan duela 46 urte joandako asko omen daude oraindik. "Gehienak oso gazte sartu ziren. Hiru familia marokoar eta txinatarrak ere badaude. Herriko gazteak ez dira etorri eta bertako seme-alaba gutxi geratu dira bertan. Izan ere, gazteak etxetik irteten hasi zirenean, ez zegoen etxebizitarik salgai hemen".

Herri gunetik hain aparte egoteak ere ez zuen jende asko animatuko. "Sekula ez dugu dendarik izan hemen. Dia irekitzearekin mesede ederra egin digute! Orain Eroski ere irekiko dutela esaten dute eta guretzat hobe, nahiz eta beste batzuek ez duten hori esango. Ogia betidanik ekar-

Maria Isabel Urreaga gustura bizi da Aparicion, baina baserri beharbada Irimoko langileek ikusi ez dituzten gauzez jabetu da. "Hemengo arazorik handiena guztiek lantegi berean lan egin dutela da. Elkarrekin lan egin eta elkarrekin bizi. Gainera, herri gunetik aparte...".

Kutsadura aurka izan dute beti Aparicioko auzokoek, horretaz kezu izan dira behintzat. "Bizilagunek hori aipatzeko esan didate etorri behar zinetela esan die-danean. Orbegozok beti bota izan du zikin-keria, baina nik Orbegozo gehiago egotearen aldekoa naiz. Dena den, badakit beste batzuk oso haserre daudela eta zikin-keriaz



tzen du okinak, baina gainontzeko erosketak guztiak egiteko herrira joan beharra oso gogorra zen. Garai batean fruteroak eta arrain saltzailea ere etortzen ziren, baina herriko saltzaileak kexatu egin ziren. Batean ase beharreko premia zegoenean, bizilagunei eskatuz moldatzen ginen".

Elkartea ere ireki zuten, Intxenea baserri ondoan. "Irimok eskola ipini zuen bertan auzoko neska-mutikoentzat. Hau itxi zenean, duela 30 bat urte, bizilagunek elkartea ireki zuten".

eta hotsaz kezu dira oraindik".

Hala ere, Maria Isabel ez litzateke horren erraz joango herri erdira bizitzera. "Toki lasai samarra eskaini beharko lidakete. Pozik bizi naiz hemen, are gehiago denda dugunetik. Gainera, Udalak auzoa ondo zaintzen duela iruditzen zait. Bidegorri berria ere oso ondo dago, baina oraindik betiko bidea erabiltzen dut. Dena den, Etxetxokoa ez dago horren pozik. Izan ere, gizonezko askok etxe inguruan txiza egiteko ohitura dute".



## Jose Antonio Sierra: "Argindarra eman gabe zegoen oraindik Etxeberrira etorri ginenean"

Jose Antonio Sierra Galdakaon jaio zen eta haurra zela bere aita Orbegozora etorri zen lanera. Alargun zegoen eta bi seme-alabak berekin ekarri zituen. Gutxira, aita Ezkioko emakume batekin ezkondu zen eta Piedad kalean jarri ziren bizitzen. Urte eta erdi beranduago, 1956an, Etxeberrira joan ziren: bertako lehen etxeak egin bezain pronto. Sierrak primeran oroitzen du auzora heldu zirenekoa. "Oraindik argindarra eman gabe zegoen. Heltzen lehenengotakoa izango ginen!".

Garai hartan etxebizitza premia handia zegoen herrian. "Jende asko txaboletan bizi zen. Gure bizilagun batzuk, esaterako, Esteban Orbegozok Agiñetan eurentzat egindako batean bizi izan ziren". Hala, 50eko eta 60ko hamarkadetan bi herriotako toki askotan egin ziren etxebizitzak, tartean Etxeberrin. "Ordura arte, zume-plantazioa eta jatetxekoen sagardotegia besterik ez zegoen. Lehenbizi, balkoirik ez duten bi etxeak egin ziren eta, handik lau bat urtera, balkoiak dituztenak".

Zumarragako auzo honetan 12 atari eta 108 etxebizitza daude. Guztiak babes ofizialekoak ziren. "Hasieran ezin genituen etxeak erosi, ezta saldu ere, noski. 50 urte luzetan, hilero 130 pezeta inguruko errenta ordaintzera behartuak geunden. Denbora hori pasatu ondoren, etxebizitzak gureak izango ziren. Dena den, bizilagun batzuek ordainketa aurreratzeari proposatu zuten eta baita lortu ere. 60ko hamarkada hasieran, etxebizitza erostera behartu gintuzten. Aitak 150.000 pezeta inguruan erosi zuela uste dut. Garai hartan diru asko zen".

Jatorri oso desberdineko jendea heldu zen Zumarragako auzo honetara. "Andaluzak, Extremadurakoak, gailegoak, euskaldunak... geunden eta gaude, guztiak langile xumeak. 50 metro koadroko etxebizitzak dira, baina haur asko hazi zen bertan: familia batean 17 seme-alaba ziren eta



beste batean 9! Garai batean oso giro ona genuen, egungoa baino hobea. Gabonetan, esaterako, etxe batetik bestera ibiltzen ginen. Ate guztiak zabalik izaten ziren. Egun, mesfidantza handiagoa da". Izan ere, garai batean joandako gutxi gelditzen dira Etxeberrin. "Berri asko etorri dira, gehienak gazteak".

Sierra, ordea, hasieratik dago. Dena den, denbora honetan guztian ez da Etxeberrin bizi izan. "Ezkondu eta emaztearen amaren etxera joan ginen bizitzera, Goiko Kalera. Baina ezkontzen denak bere etxea nahi du... Patrizion lan egiten nuen eta enpresak Brinkolan etxebizitza utzi zidan. Hiru urte eta erdi eman genituen bertan".

Ondoren, betiko auzora itzuli zen. "Gure etxebizitzaren orduko jabeak alokairuan etortzea eskaini zidan. 1.500 pezetako errenta eskatu zigun, duela 32 urte, eta Etxeberri izugarri atsegin dudanez, etorri egin ginen. 1978an etxebizitza

salgai jarri zuen, diru askorik ez genuela esan genion eta 400.000 pezeta besterik ez zizkigun eskatu. Garaje batek ia horrenbeste balio zuen ordurako!".

Jose Antonio Sierrak Etxeberri oso gustuko duela dio behin eta berriro. "Esan bezala, lehen bizilagun guztiok bat ginen. Dena den, 20 urte pasatu ziren auzoan berrikuntza eta konponketarik egin gabe. Egun, berriz, parkea eta aparkalekua egin dituzte, estolderia eta argiteria berri dituzte... etxebizitzaren balioa asko igo da. Gainera, bidegorriak herri gunea eta auzoa izugarri gerturatu ditu. Orain ondo gaude, gure arazo bakarra igogailu falta da. Bestalde, zebrabide gehiago jartzea gustatuko litzaiguke. Bakarra dugu eta aurki zebrabidea erabiltzen ez duenari isuna jarriko diotela esan dutenez... Gainera, tailerra dela eta, motozikleta asko dabil azkenaldian".

Gaur egun auto eta motozikletarik ez da falta, baina garai batean Etxeberritik herrira joatea oso neketsua zen. "Hemendik orrazi lantegira bi farola besterik ez zegoen. Gainera, errepidetik edo trenbidetik joan behar genuen... Auzoko bizilagun bat baino gehiago erori zen trenbideko zubitik".

Urruntasun hori dela eta, Etxeberrin beti izan da janari denda. "Sagardotegi azpian beste denda bat izan zen, aspaldi itxi zuten. Egungo denda duela 30 bat urte ireki zuten". Taberna ere badute. "18 bat urte izango dira ireki zutela. Urretxu eta Zumarragako taberna gutxi izango dute horrenbeste bezero! Auzokoen eta bidegorria erabiltzen dutenen artean... Solasaldi ederrak izaten ditugu bertan!".

Eskola ere izan zen Etxeberrin. "Taberna dagoen tokian kapera eta eskola izan ziren. Igandero meza izaten zen eta haurrak bertara joaten ziren ikastera. Ez zuen urte asko iraun: gure semeak 35 urte ditu eta ez zen bertara joan...".



## Eugenio Telleria: "Lehen Leturia urruti zegoela esaten zen eta orain ia herri erdian dago!"

Eugenio Telleriaren gurasoak Gabiriako baserri batean bizi ziren alokairuan, berak 5 urte zituela, egun Leturia enparantza dagoen tokira bizitzera etorri ziren arte. "Aitak baserria erosi nahi zuen, baina ez zioten berak nahi zuen prezioan saldu nahi eta, azkenean, hemen etxe txikitxo bat egin zuen. Garai hartan, hemen errepidetik gora ez zegoen ezer ere ez: baserri etxeak bakarrik".

Handik urte batzuetara etxebizitzak egiten hasi ziren. "Antonino Oraa Leturia plaza baino urtebete lehenago-edo egin zen. Horren aurretik Irastorza etxea (Eitzara bidean, Leturia plazako etxeen ondorengoa) egin zen".

Ondoren, Leturia plaza egiten hasi ziren. "Oraindik gure etxe txiki hartan bizi ginela, eskubiko etxea egiten hasi ziren. Bestea egiteko gurea bota zuten eta Eitzara joan ginen bizitzera, kontratistak aurkitutako etxe batera".

Etxearen eta lursailaren truke, etxebizitzak jaso zituzten. "Pisu batzuk hartu zituen gure aita zenak. Soldadutzatik 1968an etorri nintzen eta ordurako hemen bizi ziren. Gurea urtebete beranduago erosi genuen, 315.000 pezetatan".

Ez omen dira oso etxe onak. "Beti entzun dut egitura besterik ez dutela ona. Bukatzeko garaian, desastrea. Nabari da: ubideen matxurak-eta askotan izaten dira. Dagoeneko instalazioaren erdia aldatuko genuen! Beti esaten dut gauza bat dutela ona: ez direla eroriko".

Onak ala txarrak, garai hartan etxebizitza premia handia zegoen eta non-baitera joan behar. "Orain baino behar handiagoa zegoen. Orain bezala bizi izan bagina, etxebizitza bakoitzean bi edo hiru... Lehen 9-10 egoten ginen! Atzo bertan jardun ginen hizketan: nola liteke? orain dela 20 urte baino jende gutxiago Zumarragan eta orduan baino 1.000 etxe gehiago. Familia bakoitzean seme bat edo asko jota bi daude eta. Lehen, aitona-amona,



kin, laupabost ume... denak etxe berean".

Premiak eraginda, Leturia plaza-koen moduko etxe erraldoiak egin ziren. "Hau niri astakeria iruditzen zait, orain lehen baino gehiago. Orduan beharrezkoa zen, baina hau ikusi eta Urretxuko raskazielos demonio hori ikusi... Bi bloke haue-tan 200 familia baino gehiago gaude: port-al bakoitzak 56 etxebizitza ditu!".

Hala, garai batean 1.000 lagun inguru bizi ziren plaza hartan bakarrik. "Orain ez, baina duela 20 urte... Gazteek alde egin dute eta pisuko jende gutxi dago. Gure neskak txikiak zirenean, umeak plaza-n kabituko ere ez ziren egiten! Umezalea naiz eta horrek bai ematen duela inbidia, dena umez josita! Izan ere, etxe hauetan denok gazte sartu ginen, ezkonberriak".

Hauetakoa gehienak etorkinak ziren. "Hemen ez da arazo handirik sortu. Toki guztietan bezala, urruti ikusteko moduko familiaren bat besterik ez da egon. Galiziarrek, gaztelarrak... denak nahastuta, Babelgo dorrea da hau, baina ondo moldatzen gara. Eskuetako behatze-

kin konta daitezke hemen gauden euskaldun jatorriko familiak".

Leturia auzoaren beste ezaugarri bat Zumarraga erditik urrun samar egotea da. "Lehen gehiago jaisten ginen herrira. Asteburuetan Urretxutik buelta eman gabe ezin etsi. Neurria hartu behar zaio: lehen txikiteoa ere egiten genuen eta orain gutxiago...".

Auzoan bertan poteatzeko ohitura ere ba omen dago, denda batzuk ere badaude... "Kalera joan beharrik ez dago! Denda txiki bat dago, garesti samarra, eta ondo egiten du gainera. Zer edo zer ahazten bazaizu, hor daukazu. Bestela, astean behin edo bi aldiz behera joan eta kitto".

Leturiako bizilagunek badakite herriaren behealdean zer esaten den euren auzoaz. "Guri Elgarrestamendi *Katanga* iruditzen zaigu, baina kalekoek gugandik esaten dute. Herri guztietan gertatuko da hori: epizentroa egiten da eta barrukoa kanpokoagatik gaizkiesaka".

Telleria ez litzateke inondik inora ere plazara joango bizitzera. "Aldatzekotan, kanpoalderago joango nintzateke. Izan ere, ez naiz jende asko zalea".

Leturia plaza bera nahiko aparte dagoen arren, Udalak ez omen du auzoa ahazten. "Eskatutako guztia ez dute momentuan egiten, baina egiten ari dira: orain jubilatuentzat txoko txiki bat egiten ari dira. Askok eta askok eskatutakoa hurrengo egunean egin behar dela uste dute, baina gauzak ez dira horrela. Ni behintzat gustura nago. Hemen arazo handi bakarra dugu: errepide alu hori. Oso arriskutsua da. Beasain-Durango bukatzen dutenean, lasaitu ederra hartuko dugu!".

Aldaketarik handiena plaza inguruan eman da: etxebizitza askoz ere gehiago egin dira, ospitalea... "Hala ere, garai batean baino jende gutxiago bizi da hemen inguruan. Ipar Haizean-eta gazte asko dago, baina Leturian ez. Lehenago hau urruti zegoela esaten zen eta orain ia erdian dago!".



## Maria Zabaleta eta Tomas Urbegain: "Mundo Mejor auzoaren izena aldatzekotan egon ginen"

Tomas Urbegain zegamarra da eta Maria Zabaleta Urretxuko izen bereko baserrikoa. 1960an ezkondu ziren eta Brinkolan jarri ziren bizitzen. Bertan jaio zen seme nagusia. Maria Zabaletaren amak Mundo Mejorren egiten ari ziren etxebizitzetako bat eskatuta zuen eta lanak bukatu zituztenean, 1962an, bertara joan ziren.

Mundo Mejorreko etxebizitzak babes ofizialekoak ziren. "Kooperatiba batek egin zituen, Urretxuko Don Manuel apaizak bultzatuta. 20.000 pezetako sarrera ordaindu genuen, baina, egiten ari zirela, etxeak mugitu egin ziren eta beste 20.000 pezeta inguru ordaindu behar izan genuen giltzak eman zizkigutenean. Ondoren 319,30 pezeta hilero, duela lau bat urte arte. Bergarako epaitegira joan-etorri batzuk egin ondoren, 2010era bitartean ordaindu beharreko guztiä eman genuen".

Urbegain eta Zabaletak 40 urtetik gora daramatzate Mundo Mejorren, gustura. "Herritik aparte dago, baina toki ona da, lasaia". Garai batean, auzora zuzen doan bidea oso kaxkarra zen. "Lokatza besterik ez zegoen. Legazpin lan egiten nuen eta Brinkolatik Urretxuko baserriren batera joan ote nintzen galdeztzen zidaten. Izan ere, lokatzez goitik-behera heltzen nintzen. Azkenean, auzolanean txukundu genuen bide hori. Santa Barbarako bidea ere bazegoen, baina autobusa Grupo San Sebastianen hartzen zen!", dio Tomas Urbegainek.

Bidea egiten auzoko bizilagun asko jardun ziren. 48 etxebizitza daude Mundo Mejorren, 4 eraikin eta 6 atari. "Egungo etxeen aldean, azkar hoztu eta berotzen dira. Tamainaz, berriz, politak dira. Hiru seme hazi ditugu hemen. Gehienok gazte etorri ginen eta erdaldunak gehiago ziren. Elkarrekin harreman ona izan dugu beti".

Izan ere, garai batean auzoa herritik aparte samar zegoen eta horrek harremana estutzen lagunduko zuen. "Hemen ez da sekula dendarik izan eta eragozpenik handiena horixe da, erosketak egitera jaitsi beharra. Nik autoarekin egiten ditut enkarguak eta emaztea egunero jaisten da paseatzera. Okina oraindik ere etortzen da eta horri eskerrak, bestela ogi bila bakarrik jaitsi beharra... Ez da jende asko irteten okinari ogia erostera, baina niri gustatzen

txikiak begiratzen, baina ez genuen uste moldatuko ginenik. Egun, berriz, ez dago berriketarik: oso garesti daude etxebizitzak. Hemen bertan 30 milioi pezetatan saldu zuten...". Eurearekin gustura daude, gainera. "Neguan ere, eguzkia baldin badago, sukaldean epel egoten da".

Udalaren jardunarekin ere gustura ageri dira. "Garai batean, urtegia egin aurretik, urarekin arazo dezente izan genituen. Udalari baimena eskatu eta biltegia egin genuen. Bestalde, lehen hemen ez zegoen espaloirik eta lorategirik eta horiek Udalak egin zituen. Aparkalekuak ere egin ziren. Izan ere, etxe hauek ez dute garajerik. Bodegak, ordea, bai. Bizilagunok egin genituen, baratzeak gortzeko-eta".

Auzoan baratze dezente daude. "Hamar bat bizilagunok badugu. Arrolarenean errenta txiki bat ordaintzen dugu. Madayaren pinudia izandakoan ere badugu, baimena eskatu eta garbitu ondoren. Lurra takarra da, baina tomateak, babarrunak... ateratzen ditugu".

Bukatzeo, ezin auzoaren izenagatik galdetu gabe gelditu... "Etxeak egin zituen kooperatibaren izena omen zen. Hernanin ere ba omen zegoen Mundo Mejor izeneko auzo bat. Niri, egia esan, lotsa eta guzti ematen zidan eta izena aldatzekotan egon ginen. Toki honen izena Sorginzulo da eta horixe jartzekotan egon ginen. Beste batzuek Bellavista jartzea nahi zuten. Hemen erdaldun asko zegoen eta, Sorginzulok zer esan nahi duen jakin zutenean, auzoari izen hori jartzearen aurka azaldu ziren. Batzuek Bellavista deitzen diote".

Urbegainek dionez, makina bat barre egin omen dute auzoaren izenaren kontura. "Sarritan jotzen digute adarra. Orain, elkartean, Mundillora goazela esaten dugu, izena konpondu nahian".



zait: zahartzen garenean -izan ere oraindik ez zaigu zaharrak garenik iruditzen- bere beharra izango dugu eta...", dio Urbegainek.

Adinaz ari garela, auzoa dezente gaztetu omen da. "Hasieran etorritako hiru bat familia egongo gara, baina gazte asko etorri dira. Garai batean etorritako asko herrira jaitsi dira. Beste batzuk, berriz, bueltan etorri dira. Jorge Andueza *Pituren* gurasoek hemen zuten etxea, mutikoa zela handitan Mundo Mejorren bizi behar zela esaten zuen eta hala egin du".

Tomas Urbegain eta Maria Zabaletak ere bertan jarraitzeko asmoa dute. "Igogailurik ez dugu eta jartzeko aukerarik ere ez. Zer izango den ez dakigu, baina gu hemen gustura bizi gara. Duela sei bat urte egon ginen kalean apartamentu





Josune Zarandona

## Zortea?

### KAZETARITZA

Kazetaria izan nahi nuela erabaki nuenean, ez dakit dozena bat urtera iritsiko nintzen ere. Txiki-txikia nintzenetik garbi nuen zer izan nahi nuen handitzen nintzenean eta oraindik gogoan ditut etxeko egongelan "ematen" nituen albistegiak eta asmatzen nituen berriak.

Garbi nuen beraz, zer izan nahi nuen eta baita Unibertsitatean zer nolako ikasketak egin behar nituen ere. Unibertsitateko lehendabiziko urtea ia konturatu gabe pasatu zitzaidan, nobedadea, lagun berriak, bizimodu berria... konturatzerako udako oporren atarian nengoen (hori bai, bizkarrean espero baino suspentsio gehiagorekin). Bigarren urtetik aurrera, Unibertsitatean ikasten ari nintzenak eta txikitik eraikitako munduak zerikusi handirik ez zuela konturatzen hasi nintzen.

Hori zen beraz, Euskal Herriko Unibertsitateak etorkizuneko kazetariak eratzeko zuen proiektua. Kurtso amaieran egindako praktikengatik izango ez balitz, ziur nago unibertsitateetik kazetaritza mundua ezagutu gabe, eta ekonomia, pentsamendu politikoa, zuzenbidea, historia eta horrelako gaietan ia masterra aterata irtengo nintzela.

Zorionez, aipatu dudana bezala, karrera amaitu aurretik ikasketen osagarri praktikak egiteko aukera izan nuen eta orduan izan nuen nire lehen harremana irriarekin. Gerora, telebistan lan egiteko aukera ere izan dut, baina irriatik duen magia berezi hori ez dut beste inon bilatu eta gaur egun zorionez gustatzen zaidan horretan lan egiteko zortea dut (edo hori diote behintzat).

Egia esan, ez dut neure burua irratian edo kazetaritzarekin loturarik ez duen beste ezertan lanean ikusten oraingoan. Nire lanak alde on asko ditu. Jende askorekin hitz egin eta pertsona asko ezagutzeko aukera ematen dizu irriak. Gai askoren gainean gauza berriak ikasi eta leku ezberdinak ezagutzeko ere lanbide ezin hobea da. Jende jator asko elkarrizketatzea tokatu zait gehienetan, hala ere denetarik dago mundu xeble honetan eta bateren baten edo besteren umore txarrak jasan eta errietak ere entzun behar izan ditut batzuetan.

### ZORTEA?

Hala ere, jende askok zortea dudala esaten dit, gustatzen zaidan horretan lan egiteko aukera daukadalako. Eta alde batetik arrazoia eman beharrean nago. Izan ere, zenbat dira unibertsitate ikasketak amaitu eta lantegi batean, edota

berea ez den horretan lanean daudenak? Askok zoritxarrez.

Gaur egun unibertsitate ikasketak edukitzeak ez du etorkizun batean lana izango duzula segurtatzen, ezta gutxiago ere. Eta ikasi duzun horretan lana egiteak lan baldintza eskasak onartzera behartzen zaitu. Telebistan ikusi nuen erreportai batean, benetan zer pentsatua eman zidaten datuek nire arreta piztu zuten aurreko batean.

### DATUAK

Unibertsitate ikasketak dituzten asko eta askori 30 urte pasatu arte luzatzen dizkiete praktika kontratuak. Horrek soldata arrunt baten ehuneko zati bat bakarrik kobratzea suposatzen du. Bekadun bezala hilabeteak ez ezik, urteak igarotzen dituenik ere bada. Enpresa batzuetan zerbait kobratzeko aukera izaten dute hauek, beste askotan, ordea, musu truk lana egitera behartuta daude. Eta behartuta diot bai, ikasketak amaitu eta zure horretan lan egin nahi baduzu, askok esperientziari eskatzen baitute, eta horren aitzakian lan baldintza oso eskasak eta ia eskubiderik gabe egiten dute lan askok. Okerrena ez da hori, ordea, telebistako erreportaje honetan esaten zutenaren arabera gero eta gehiago dira lan baldintza hauek onartzera behartuta dauden gazteak eta gainera, praktika eta beka kontratuak gero eta gehiago luzatzen ari dira.

"Milaeurokoak" edo horrelako izen berri bat sortu omen da gizarteak sortu dituen langile potentzial hauek izendatzeko. Irrigarriena ez da izena, ordea, izena jartzearen zergatia baizik. Langile hauek guztiak duten ezaugarrietako bat denek mila eurotik behera kobratzen dutela baita (kobratzen dutenen kasuan noski).

### ZER EGIN?

Eta honen aurrean zer? Hori galdetu diot neure buruari behin baino gehiagotan. Neure esperientziak erakutsi dit, norbanakoak bakarrik ezin diola arazo honi, edota enpresa askok gizarteari egin nahi dioten iruzur honi aurre egin. Sindikatuek zerbait pentsatu beharko lukete honen aurrean. Egun indarrean dauden "zabor-kontratu" hauek nolabait erregulatu, legez kanpo egiten diren kontratuei jarraipena egin eta desagertarazi. Azken batean pertsona bakoitzak duintasunez lan egiteko duen eskubidea bermatzen saiatu beharko lirake. Horregatik, ikasi dugun horretan lan egiteko zortea dugula esaten duten horiei, gaiaren inguruan hausnarketa egiteko eskatuko nieke. Hau denen artean gelditu beharreko zerbait da, ni behintzat ez bainago nire eskubideak nik neuk kakazteko prest.



# ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

**Herriko zein tokitan bizi zara?  
Gustura al zaude?  
Zein zonalde duzu gustukoen?**




**Ana Murillo**

Urretxuko Iparragirre kalean bizi naiz. Lehenago auzo mordoska bat ezagutu ditut: San Isidro, Eitza, Antonino Oraa... Nagoen tokian gustura bizi naiz, baina Kale Txiki txerriotokia da. Orain konpontzen ari dira, baina txixatokia izaten jarraituko du. Dena den, Iparragirren oso ondo bizi naiz eta ez nuke tokiz aldatuko.



**Isidro Calvo**

Zumarragan bizi naiz, Okendo kalean. Lehenago ospitale inguruan bizi izan nintzen, baina duela 40 bat urte jaitsi egin nintzen. Ez dut bizitokiz aldatzeko asmorik, oso gustura bainago erdigunean. Dena den, auzo ederragoak badaude eta noizbait aukera ona izango banu...



**Sergio Mora**

Zumarragako Txurruka kalean bizi naiz. Goiko Kale eta Ipeñarrieta ere ezagutu ditut. Ipeñarrietan oso gustura bizi nintzen, toki ona da. Aldatzekotan, bertara joango nintzateke. Txurrukan ere ondo nago, trafikorik ez dago eta oso lasaia da.



**Gema Mujika**

Andoaindarra naiz, baina bederatzi urte daramatzat Gernikako Arbolan. Primerako tokia da. Bi herriotako gainontzeko auzoak ezagutzen ditut, nahiz eta izenak ez dakizkidan. Egia esan, ez nintzateke beste leku batera joango bizitzera. Herri erdian bizi naiz eta dena eskura dut.

**MURUA**  
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,  
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13  
ZUMARRAGA

**ETXABURU**  
merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU




Legazpi, 5  
☎ 943 72 62 74  
ZUMARRAGA





autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako  
mintegiak



## Zer eduki beharko luke nire enpresaren Webguneak?

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren  
Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Nire enpresak **Interneten egon behar** du, baina,  
nola? **Webgune eraginkorra eta zuzena** izateko  
kontuan hartu behar dudan guztia. Jarraitu beharreko  
oinarrizko **gomendioak**.  
Domeinua. Webgunearen diseinua.

Urola Garaia  
maiatzak 9  
ZUMARRAGA  
Urola Garaiko Fundazioa  
(UGLE)

Informatzeko eta izena emateko:

**943 747 314**

[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)

[cursos@miramondigital.com](mailto:cursos@miramondigital.com)


Ordutegia:  
**18:00-20:00**

Antolatzailea:



**Miramón**  
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



e.gipuzkoa SPRI



**ZUEK BAI JAKINI!**

# Inixio Izagirre: Ipeñarrietako jauna



Urretxun eraikin esanguratsurik bada, hori Ipeñarrieta jauregia da. Hamaika gertakizun eta pertsonaia ezagututako etxearen berri Izagirretarrek dute inork baino hobeto. Izan ere, 300 urte inguru dira bertan bizi direla. Duela 50 bat urte, Juan Joxe Izagirrek erosi egin zuen. Egun, bere seme Inixio Izagirre eta honen sendia bizi da bertan.

2006ko apirila



# ZUEK BAI JAKIN!

Idi hauekin Egoitz Armaolearen aurka desafioa jokatu zuen apirila hasieran.



Lagunekin solasean, Abenduko FERIA berezian.



## Nolatan Izagirretarrak etxe honetan?

Ez dakit nola sartu ginen bertara, baina urte askotan gaudela bai. 200 urtetan maizter egon gara bertan eta duela 50 bat urte erosi egin genuen. Etxea Carmen Alonso izeneko donostiar batena zen. Raimundo Alberdi arkitekto azkoitiarra zuen gizona. Herentzian jaso zituen hau eta Areizaga etxea. Garai batean udaletxea ere familia berekoa izango zen, Corral-Ipeñarrieta baitu izena. Carmen Alonso alargun geratu eta beste batekin ezkondu zen, ezer ez zuen lapur batekin. Dena altxatu zion. Zazpi ume zituzten guztira eta behar baino lehen etortzen zen errenta eske, haurrei eskola ordaintzeko dirua behar zuela eta. Azkenean, gure aitak erosi egin zion.

## Bake ederra hartuko zenuten...

Horixe bakea... Lehenengo lursailak bakarrik saldu zizkion aitari. Dirurik gabe gelditu zen berriro eta etxea saldu zigun gero. Etxe handia da, baina bertan bizi ginen eta hura nahi... Ondoko baserria gerra aurretik gurea zen dagoeneko. Guk ganaduarentzat-eta erabiltzen dugu, baina lehen bertan beste familia bat zegoen. Neskazarhar eta mutilzaharrak ziren, azkenean ospitalera... nik ez nituen ezagutu.

## Hautzaroan ederki asko ibiliko zineten etxe puska honetan....

13 anai-arreba gara eta etxea erosi genuenean guztiok hemen bizi ginen, aita-

rekin, amarekin eta amamarekin. Etxea handia da, baina betetzen genuen. Jaietan-eta, gainera, Mendizabalgoekin elkartzen ginen: haiek beste 14 ziren. Ederki ibiltzen ginen, jolasean... aita haserretu arte.

## Zenbat gela ditu?

Gela handiak ditu. Ganbarak, adibidez, buelta osoa ematen du. Dena erabil-

“Hasi eta zazpi urte behar izan zituzten bidea egiteko. Nik 13 urte neuzkala bukatu zen obra”

tzen dugu. Lehen alde batean artoa, beste-an patata eta sagarra, belarra, gurdia, egurra... izaten genituen.

## Nahiko lan emango du etxe hau mantentzeak...

Hori du okerrena, mantenua. Orain erreteila egitekotan gara. Hartu genuenetik berrikuntza asko egin behar izan ditugu. Garai hartan hiru gela zituen eta ondoren beste hiru atera genizkion beste aldean. Diru pixka bat ikusten badugu, beti obrak... Dena den, moldatzen gara.

Udalak esan zidan hartuko zigula, baina ez dugu saldu nahi.

## Garai bateko nagusiak ondo zaintzen al zuen Ipeñarrieta?

Raimundok, Carmen Alonsoren lehen senarrak, berarentzako gela egin behar zuela eta, leiho borobilak egin eta besteak mugitu egin zituen. Hasi eta berehala gerra heldu zen, obra gelditu zen eta kitto. Oraindik errepiderik ez zegoen eta materiala gurdian hartzen zuten behean. Gora heldu orduko, galtzadan tripi-trapa, erdia galtzen omen zen.


## Noiz egin zen errepidea?

Raimundo hori Foru Aldundiko jendearekin etortzen zen hona noizean behin. Gela bat hartzen zuten, sukaldaria ekartzen zuten, sekulakoak egiten zituzten... Halako batean, Raimundok hemen bidea egiteagatik 10.000 duro emango zizkiela esan zien Foru Aldundikoei. Urretxuko alkatea ere, Elgarresta, hemen egon zen. Foru Aldundikoak *joño! 10.000 duro dirua duk. Txanda hartuko diat esan* omen zuen. Hasi eta zazpi urte behar izan zituzten egiteko. Haren dirua kableak ipini eta pinuak jaisteko erabili zuten alproja batzuek. Dirua gastatu zela eta gelditu egin zen. Gero, beste beroaldi batean, egin zen. Nik 13 urte neuzkala bukatu zen obra, 1952an. Beste aldean, Ipeñarrietatik datorrena, Juanito Arbizu alkate zela egin zen. Ordurarte bidean zepa zegoen.



# ZUEK BAI JAKINI!

Herria eta inguruko mendiak primeran ikusten dira Ipeñarrietatik.



## Umetan askotan jaisten al zineten baserrietik herrira?

Eskola Santa Barbaran genuen, maistra etortzen zen bertara. Hiru ahizpen artean 39 ume zituzten. Orain tabernako jangela dagoen tokian ematen ziguten klase. Sekulako hotza egiten zuen han. Bolada batean ez ziguten euskaraz hitz egiten utzi. Euskaraz egiten bagenuen itsulapikora hainbeste bota behar genuen. Behin 15 bat urte beteta, kalera gehiagotan jaisten hasi ginen. Umetan, berriz, mezatara eta Santa Anastasietan-eta bakarrik joaten ginen. San

“Ni mutikoa nintzenean, baserrian jatekoa zegoen eta kalekoak gustura etortzen ziren hona”

Juan eguna zen handia guretzat. Elgarresta alkatearen semea, Pedro, herrena zen eta San Juan goizean behorra hartu eta kalera joaten nintzen hura Santa Barbarako meza nagusira ekartzeko. Arratsaldean, berriro behorrean hartu, eta etxera eramaten nuen. Hori zen San Juan eguneko nire lana eta horren truke eskupekoa ematen zidaten, hori zen ederra!

## Noiz utzi zenuen eskola?

Ordurako, 11 bat urterekin, utzi nuen Santa Barbarako eskola. Etxera: idiak, behiak eta ardiak. Beti horiekin borrokan! Bi pare idi, dozena erdi bat behi eta 100 bat ardi genituen.

## Nolatan gelditu zinen zu baserrian?

Anaia zaharrena eta lau arreba ditut zaharragoak. Aita gaztea zen, anaia zaharrenak andrea ekartzeko ere familia galanta zen eta andrearen etxera ezkondu zen. Arrebak ere kanpora joan ziren eta hurrengo mutila ni nintzen. Gainera, niri gustatu egiten zitzaidan baserriko lana.



## Eta, zer nolako giroa baserrian?


Baserrian ez dago giro txarra, baina kalean ona. Lehen ez zena. Ni mutikoa nintzenean, kalean mutikoak jateko ogirik gabe zeuden. Baserrian jatekoa zegoen eta kalekoak gustura etortzen ziren hona. Orain, berriz, kalean dena dugu. Kaleko jendea oso ondo bizi dela iruditzen zait. Baserrian ere orduan baino hobeto bizi gara, baina baserri hutsetik bizi denak gogor saiatu behar: ganadu asko, esne asko atera behar, asko mugitu behar... Egun, baserri hutsetik bizi diren gutxi daude.

## Zu, adibidez, baserri hutsetik bizi zara.

Tarteka, hona edo horra, idiekin jornalera joan izan naiz: basoren bat atera behar zela... Jeronimok eta Luxiak hemen basoak hartzen zituzten eta haiekin joaten

Herri Aldizkaria  
**Otamotz**  
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.  
**Merkea eta ona!**

   
Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium  
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

  
ALTZARIAK  
**MERKA-UROLA**  
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28  
URRETXU

centro óptico  
**JAVIER Arratibel**  
optika  
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak  
Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84

  
**SUTAN**  
Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak  
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38  
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU  
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



# ZUEK BAI JAKIN!

nintzen idiekin jornalera. Orduan ez zegoen erreperiderik eta pistarik eta idiekin lan egin behar zen. Lan astuna eta txarra zen, askotan bustia, penoso.

## Basoan bakarrik ibili al zara etxetik kanpo idiekin?

Mundo Mejjorreko etxeak egiten ere ibili nintzen. Goizean 8.00etarako han egon behar izaten nuen idiekin, langileak bezalaxe. Han 8.00etan egoteko, 5.30ean jaiki behar izaten nuen: idiei jaten eman eta 6.45ean idiak uztartzen hasi, 7.00etarako idiak uztartu eta 8.00etarako lantokian pronto. Gauean ere, han lan egiteari 6.00etan utzi ondoren, beti egoten zen zer edo zer egiteko. Orduan bigarren idi pareka ekarri genuen. Aita oraindik sasoiko zegoen eta berak etxean lan egiten zuen.

## Idiekin lan handia egindakoak zarete.

Dena idiekin. Idia egun guztia uztarrian egoten zen lehen. Garai honetan hasten ginen soroak zeuzkanarentzat lanean, goldearekin. Sei edo zortzi lekutara joaten ginen goldera: Berriotxoa, Altamira, Patrongoa, Alkortanekoa, Pagoeta... Ordaintzen zuenak lana kurioso egitea nahi izaten zuen eta asko ibiltzen nintzen. Sasoi honetan beldurrez izaten nintzen askotan: etxean egin behar dut ba

ekinaldi bat!, baina batenbat etortzen zen eta etxekoa utzi behar.

## Zuek idizaleak izan zarete beti.

Idiek lan asko egiten zuten orduan. Ederra gertatu zitzaidan behin. Garia ebakita eta jaso egin behar. Txakurra gurdipera joan zen, idiak ostikoa tiratu zion eta gurdia jo zuen. Orduetik, idi hark ez zion ostikoa emateari utzi. Atzean edozer gauza ikusita, ostikoa jotzen zuen. Idia kendu behar izan nuen. Altamirakoak utzi behar izan zidan idia eta, azkenean, erosi egin nion.

## Behiak ere beti izan dituzue.

Bai, uztarrirako ere bai. Idiak kanpoan zirenean, askotan behiekin lan egiten genuen. Lanerako erabiliz gero, esne gutxiago ematen zuten. Dena ezin.

## Nekazaritza batzordean ere aritutakoa izango zara.


Koinatua, Arrieta, alkate izan zen garaian egin zen hemen baserriarren batzordea. Orduan, 1982an, osasun kanpaina abian jarri zen eta askok ganadua kendu behar izan zuten. Herriari laguntasuna eskatu genion eta Udalak zenbait botika doan ipini zituen. Ekimen horrek oraindik jarraitzen du.

## Etorkizuna nola ikusten duzu?

Oso gaizki. Iaz eman zioten Espainiari saldu beharreko esnearen kupoa eta hori onartzearen diru bat agintzen diote. Diru horrekin poztu eta baserriar askok esne behiak kendu dituzte. Guk behiekin jarraitzen dugu, idiak karrozatarako eta probatarako besterik ez: kapritxoa. Esnea da gure baserriaren oinarria, baina ez digute uzten produzitzen. Kupotik gora entregatzen badugu zentralera, salaketa jartzen digute.

## Seme-alabaren batek baserrian jarraituko al du?

Denek kanpoan lan egiten dute. Kanpora begira daude, etxean daudenak ere. Baserriko lanak ez du ordurik. Izagirretarrok urte asko daramatzagu Ipeñarrietan, baina ez dakit aurrerantzean zeinek mantenduko duen. Teilatua ondo ipini nahi dut, hori eginda puska baterako segurantzaz izango dugu. Baten batek helduko dio: hemendik bista ederra dugu eta kalean lan eginda bizitzeko ez da leku txarra. Jurnal batekin mantentzeko etxegarestia da, hori bai. Orain aitak agindu egiten die, baina aitak agintzen ez dien garaian, akaso, bakarren batek helduko dio. Gurasoen ondoan gaur ez du inork egon nahi.



**Megadenda**  
zure aukera musika eta liburutan

[www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)



Bergara, 6  
20005 Donostia  
Tel.: 943 42 63 50



Fermin Calbeton, 21  
20003 Donostia  
Tel.: 943 42 00 80  
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8  
20302 Irun  
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12  
20570 Bergara  
Tel.: 943 76 40 50



2006ko apirila



## Mitxel Badiola: Kirola, bizitzaren ardatz



Kirolzale handi baten bila hasiz gero, nekez aurkituko dugu Mitxel Badiola urretxuarra bezalakorik. Futbol jokalaria lehenengo, entrenatzailea ondoren, La Salle ikastetxean gorputz heziketa irakaslea, Urolako futbol taldeko kirol zuzendaria... eta, gainera, jiu jitsuan maisu. Hala, martxoan Zumarragan izan zen Espainiako txapelketan brontzeko domina lortu zuen. Berarekin hitz egiten izan gara bere bizitza gidatu duten kirolari eta Urola futbol taldeari buruz.

### **Noiz eta nolatan hasi zinen kirolean?**

Ikastolan hasi nintzen, eskola kirolean. Lehen kirol gehiago egiten genuen. Egungo haurrek betebeharrak gehiegi dituzte. Guk kirolean jartzen genuen arreta eta eskola orduetatik kanpo ere hori zen gure jardura nagusia. Egun, ordea, ordenadoreak-eta dituzte.

### **Futbola zen, gainera, ia kirol bakarra.**

Ez zegoen aukera asko, baina eskubaloia ere jokatzen zela gogoratzen dut. Ume gehiago zeuden, talde gehiago, eta gehienok futboleko aritzen ginen. Federatzeko 14 urte behar ziren eta egun alebin mailan hasten dira: Urolak 11 urteko mutikoak ditu. Gu zor-zigarren mailan sartzen ginen.

### **Garai hartan ohore handia zen Urolarako hautatua izatea.**

Egun ere ohorea da. Umeak ilusioz hasten dira, baina gero... Gizartea asko aldatu da. Talde batean sakrifizioa, entrenatzaileari errespetua... behar dira eta egun zailagoa da haurren motibazioari eustea. Haurrek bizimodu erosoagoa dute eta batzuei kostatzen zaie taldean eskatzen den erritmoari eustea.

### **Nola oroitzen duzu Urolan hasi zinen garaia?**

Urte hartan 8. mailako mutiko asko geunden eta Urolak beste talde bat sortu zuen, Zumarraga izenekoa. Izan ere, ezin zituen maila berean Urola izeneko bi talde izan. Urola izenekoan "Bixio" Aranburu, Urmeneta, Elizondo... zeuden. Zumarraga izenekotik, Aitor Iraola eta ni bakarrik heldu ginen lehen taldera.

### **Zer ibilbide osatu zenuen lehen taldera iritsi aurretik?**


Infantiletan bi urte eman nituen eta gero jubenil mailara pasatu nintzen. Infantil mailako bigarren urtean Gipuzkoako selektzioarako hautatu ninduten. Talde hartan Luis Perez Realeko jokalaria ohia zegoela oroitzen dut. Urolak jubenil mailako bi talde zituen



# IZERDI PATSETAN



Urola taldearen 1000. gola sartzeagatik saria eman zioten Badiolari.



Martxoan Ispillan jokatu zen jiu jitsu txapelketan. Argazkia: Götzon Aranburu.



1991-92 denboraldian, 3. mailara igoera ospatzen.

eta hasieratik nagusian aritu nintzen. Hiru urte eman nituen maila horretan. Gogor borrokatu behar izan nuen postua lortzeko, baina lehen urtea oso ondo bukatu nuen.

## Orduan elkartuko zinen, gerora, urte luzetan, zure taldekideak izan zirenekin.

Jubeniletako lehen urtean beraiekin jokatu nuen, baina lehen taldean elkartu nintzen beraiekin behin-betiko, ni baino urtebete zaharragoak baitira. Jubeniletan Ohorezko Ligara igotzea lortu zuten eta Gipuzkoako Txapelketa ere irabazi zutela uste dut. Onak ziren eta, gainera, Ikastola garaitik elkar ondo ezagutzen zuten.

## Noiz jokatu zenuen lehenengoz talde nagusiarekin?

Garai hartan jubeniletan hiru denboraldi egiten genituen. Azkeneko bietan lehen taldearekin ere aritu nintzen. Lehen bi urteetan ez nuen jarraipen handirik izan, baina 1990-91 denboraldian hamaikakoa finkatu nintzen.

## Hurrengo denboraldian Hirugarren Mailara igo zineten. Urolak sekula lortu duen balentriarik handiena da.

1991-92 denboraldian mentalitate aldaketa egon zen. Behetik gentozenak eta kanpoan aritutako batzuk (Iñaki Mendiluze, Clemente...) elkartu ginen: esperientzia eta gaztetasuna. Batzuk 18 urte inguru genituen eta besteak dagoeneko ezkondu zuten. Nahasketa oso polita

izan zen. Bigarren sailkatu ginen eta igoera fasea jokatu ondoren igo ginen.

## Denboraldi hartakoak al dira zure futbolari garaiko oroitzapenik ederrenak?

Bai. Aurreko denboraldia Alavel Aficionados taldearekin bukatu nuen eta igotzeko zorian izan ginen. Etxera itzultzea eta igoera lortzea oso gauza polita izan zen. Jesus Mari Biain eta Iñaki Aldalur jarri ziren entrenatzaile eta eurak izan ziren itzultzeko esan zidatenak.

## Argixaon sekulako giroa bizi izan zen.

Zaila izango da berriro halakorik ikustea. Partida batzuk grabatuta daude eta Argixao jendez gainezka ikusten da. Jokalariek ordukoa bezalako giroa ezagutuko balute, gauzak beste era batera ikusiko lituzkete.

## Nolako izan zen Hirugarren Mailako esperientzia?

Igoera lortu ondorengo lehen denboraldia ez nuen Urolan jokatu. Zenbait eskaintza izan nituen eta garai hartan 2.B mailan zegoen Beasain taldera joatea erabaki nuen. Gertutasunagatik, ez nuen autorik, eta Realarekin harreman estua zuelako joan nintzen bertara. Miguel de Luzek ere eskaintzak izan zituen eta Realaren bigarren taldearekin entrenatzera joan zen.

## Zer moduz 2.B mailan?

Aldaketa izugarria nabaritu nuen.

Futbola beste era batera bizi zen. Beasainen diru dezente irabazten zuten jokalaria zeuden, batzuk Lehen Mailan arituak. Urtebete besterik ez nintzen egon: hasieran entrenatzaileak apenas eman zidan aukerarik eta otsailean hasi nintzen jokatzen. Ondoren, Lizarrako taldearen aurka, belauna hautsi nuen. Halako lesioa izanda, kontratua luzatuko zidatela uste nuen, baina udan beraingana zuzendu behar izan nintzen ez zidatela luzatu behar jakiteko. Zorionez, Urolak itzultzeko aukera eman zidan.

## Hurrengo urteetan eman zenuen onena.

Urtebete kosta zitzaidan osatzea. Regional mailako taldean hasi eta bigarren itzuliko bigarren partidaren jokatu nuen lehen partida talde nagusiarekin. Zalantzak nituen, baina taldeko goleatzaile nagusi bukatu nuen. Hurrengo denboraldian 16 gol sartu nituen. 1995-96an eta 1996-97an, berriz, Hirugarren Mailako goleatzaile nagusia izan nintzen. Urte hartan jaitsi ginen, Sansek maila galdu zuelako.

## Ordurako, Urolak sekula izan duen talderik onenaren gainbehera hasia zen.

Exijentzia oso altua zen: aurre-denboraldia oso goiz hasten genuen, entrenamendu gogorak genituen... Hirugarren Mailan eman genuen azken denboraldia hasi aurretik oso garrantzitsuak ziren jokalaria batzuek futbola utzi zuten eta asko nabaritu genuen.



# IZERDI PATSETAN

## Zuk, ordea, futbolean jarraitu zenuen.

Jaitsi ginenean 2.B mailan zegoen Elgoibar taldera joan nintzen eta hurrengo denboraldia Hirugarren Mailako Lagun Onaken eman nuen. Nekatu egin nintzen eta etxera bueltatzea erabaki nuen.

## Aurkitu zenuen Urola eta zuk ezagutu zenuena oso ezberdinak izango ziren.

Bi denboraldi gehiago eman nituen eta 2000. urtean, 30 urterekin, utzi nuen. Ordurako beteranoena nintzen, Iñaki Aranzadik urtebete lehenago utzi baitzuen. Beterano papera ez nuela bete esan beharra dut, hain ziren desberdinak nire pentsaera eta gazteena... Egoera oso aldatua zegoen: nik ezagututako inplikazioaren eta aurkitu nuenaren arteko aldea handia zen.

## Ba al dira egun 30 urteko jokalariek Urola bezalako taldeetan?

Egun jokalariek ez diote jokatzeko gogoari horrenbeste urtetan eusten. Gure garaian ez zegoen, adibidez, eskiatzera joateko aukerarik edo ohiturarik. Gure bizitza-

**“Futbolaren eraginez  
naiz naizen  
bezalakoa. Futbolak  
heziketa, lagunak...  
eman dizkit”**

ren ardatza kirola zen. Egun, nahiz eta partidak larunbatetan jokatzen dituzten...

## Ez zara bidetik atera: ondoren entrenatzailea izan zinen.

Delfosek Iñaki Aranzadiri eta bioi taldea entrenatzea eskaini zigun. Elkarrekin hitz egin eta baietza ematea erabaki genuen. Egoera zaila zen, jokalaria batzuk nirekin aritutakoak baitziren. Lehen urtean Preferente mailara igotzea lortu genuen, baina zenbait jokalariei gehiegi eskatzen geniela leporatu ziguten. Izan ere, Iñaki eta biok serioak eta zorrotzak gara. Hirugarren denboraldirako taldea asko aldatu behar izan genuen eta ez genuen mailari eustea lortu. 2004-05 denboraldia izan zen azkena.

## Orain, berriz, kirol zuzendaria zara.

Nire lana kirol helburuak ezartzea eta klubaren maila hobetzeko ahaleginak egitea da: entrenatzaileak hautatu, talde bakoitzaren helburuak ezarri, taldeetan sortzen diren arazoak konpontzen saiatu... Entrenatzaileekin harreman zuzena dut.

## Bizitza osoa daramazu futbol munduan, zer da kirol hau zuretzat?

Futbolaren eraginez naiz naizen bezalakoa. Futbolak heziketa, lagunak, bizitzeko era bat... eman dizkit. Bestalde, bizi izan ditudan egoera larriei aurre egiten ere lagundu dit. Ezaguna banaiz, futbolagatik da. Honen bitartez, kirolarekin zerikusia duen ikasketak egin ditut eta nire bizitza kirolaren inguruan antolatuta dut.

## Urolak estatua jarri beharko dizu...

Egun, gazteek klubari mesede egiten ari direla esaten dute. Bere garaian guk kirol errendimendua eman genuen eta klubak bizitzeko era bat eman zigun. Niretzat Urola oso garrantzitsua izango da beti.

## Egun arte martzialetan ere bazabiltza.

Beti izan ditut gustuko. IVEF ikasiten ari nintzela, ikasgai bat judoa zen, baina futbolaria nintzen eta ezin nuen landu. Futbola utzi eta berehala, kiroldegian, Paternaini nire nahia azaldu nion eta probatzeko esan zidan. Duela bi urte taldekako txapelketa jokatu nuen Madrilen. Izugarri gozatu nuen. Iaz, berriz, Zumarraga Hiria txapelketa irabazi nuen. Aurten, Espainiako txapelketan parte hartzera animatu naute eta brontzezko domina lortu dut. Futbolearen arte asko eman ditut, baina sekula ez dut Espainiako txapelketa batean parte hartzeko aukera izan. Goatzeko asmoz irten nintzen eta txapelkunaren aurka bakarrik galdu nuen. Gainera, munduko txapelkunordea da.

## Bukatzeko, egungo haurrek kirol gutxiago egiten dutela esan duzu. Zer esango zenieke gurasoei?

Gurasoek garrantzia handia ematen diote euren seme-alabak ingeniari-edo izateari eta partikular askotara apuntatzen dituzte. Kirolaren garrantzia ahaztu dute, euren heziketan ezinbestekoa da. Umeei kirol munduarekin harremana izaten utzi behar diete eta kirolaren balioa ulertu eta dagokion garrantzia eman.




**HARATEGIA URDAITEGIA**  
☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA



**Keros Enmarkatzeak**  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak  
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 60

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**  
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70



**arropa informala**  
Barrenkale  
Urretxu  
943 72 40 57



**ELEKTRATRESNAK**  
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA





## Asier Murua

Muruak Ikastolan egin zituen oinarrizko ikasketak eta, ondoren, Lizeora joan zen. Azkenik, Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza ikasi zuen Oñatiko ETEOn. "Oso esperientzia ona izan zen. Egunero autoan joaten ginen eta, bost urtetan gora eta behera, makina bat abentura izan genituen. Gainera, ETEO ez dago masifikatuta eta irakasleekin oso tratua zuzena genuen. Hori dela eta, ez nuen alderik somatu Lizeotik hara". Ikasketak bukatu ondoren, Elgoibarren lanean hasi zen. "Hiru urte eman nituen makina erraminta institutuan eta, orain, beste hiru daramatzat Bergarako Banco Guipuzcoanon. Gustura nabil".

Asier Murua bi gauzengatik da ezaguna batez ere: bere futbolzaletasunarengatik eta eitzatartasunagatik. "1990etik 1999era bitartean Urolan jokatu nuen, beti aurrelari. Jokatzeari utzi nionean entrenatzaile titulua atera nuen. Urolaren jubenil, kadete, infantil eta alebin taldeak entrenatu ditut. Lan horri esker gazte eta guraso asko ezagutu ditut. Horrek asko balio du". Aurtengoa du lehen urtea Urolatik kanpo. "Apu bat nekatuta nengoen dagoeneko, bizitza erdia baineraman Urolan".

Egunotan Eitzako jaien antolaketan burubelarri dabil. "Laupabost urte edo gehiago izango dira gazteak festen antolaketan hasi ginelako. Eitzan jaio ez den batek ez du ulertzen, baina bertakoa izatea gauza berezia da. Aurtengo jaietako egitaraua aurreko urteetako parekoa izango da. Hori bai, joan zen astean jokatu zen koadrilen arteko herri kirol desafioaren errebantxa Eitzan jokatzeko gustatuko litzaiguke".

### **-Zer izan nahi zenuen umetan?**

Gehienak bezala, futbolaria. Pixka bat aurrerago konturatu ikusi nuen ez nintzela gai...

### **-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?**

Ez zait batere inporta etxean egotea. Bestela, kirola egitea: mendia, mendiko bizikleta, korrika...

### **-Gustuko futbolaria?**

Alkiza, betidanik. Urolakoen artean Iñaki Aranburu eta Mikel Mesonero.

### **-Gustuko entrenatzailea?**

Beti izan dut gustuko orain oso modan dagoen Benitez.

### **-Behobia-Donostia ala Eitzako krosa?**

Eitzako krosa esan beharko dut...

### **-Bordatxo ala Arzak?**

Biek dute eitzatar kutsua... bakoitza bere momentuan.

### **-Athletic ala Urola?**

Urola.

### **-Zer gertatu zen Indar Hori zaletu taldearekin?**

Herri mailan futboleko bizi izan diren unen onenak bizi izan genituen. Gazteagoak ginen eta ez genuen ezertarako lotsarik.

### **-Aznar ikusi ondoren zaletu al zinen padelean?**

Kirol guztiak gustuko ditut. Teniseko pista gaizki zegoenez, padelean hasi nintzen.

### **-Ileheriak ala beltzaranak?**

Beltzaranak.

### **-Egindako azken oparia?**

Gemari polar bat.

### **-Eta jasotakoa?**

Gaur bertan jertse bat oparitu didate.

### **-Data bat?**

Duela bi urteko irailaren 11. Ezkontza eguna.

### **-Neska eta mutil izen bana?**

June, lehengusuaren alaba jaioberriarena, eta Markel.

### **-Zein egunkari irakurtzen duzu?**

Osorik bat ere ez, baina gaineratik bost: Expansion (lan kontuengatik), Gara, DV, kirolerako bat eta etxean Hitza.

### **-Gustuko telebista saioa?**

Canal Cocina askotan ikusten dut.

### **-Bereziki gorroto duzuna?**

Telenobelak.

### **-Liburu bat?**

Ez dut asko irakurtzen. Azkena, "Levando anclas. 20 años de viajes y aventuras" izan da. Juanjo San Sebastianen "Cita con la cumbre" ere asko gustatu zitzaidan.

### **-Filme bat?**

Ez naiz zinezalea. Azkenaldian ikusi ditudan filmeen artean, "Princesas" gustatu zait.

### **-Soinu bat?**

Trikikitxarena.

### **-Usain bat?**

Perfume on batena.

### **-Janari bat?**

Babarrunak.

### **-Ura ala...**

Errioxako ardo onen bat.





# UGGASA

Urola Garaiko Garapenerako Agentzia

Ezkio-Itsaso • Legazpi • Urretxu • Zumarraga

Enpresa Ekimen Berriei Babesa



Eskualdeko Enpresa Txiki eta Ertainei Laguntza  
Informazioa - Bitartekotza



Merkataritzari Laguntza Teknikoa



Langabetuentzako Enplegu Zerbitzuak



Prestakuntzarako Informazioa

943725829 (Zumarraga) - 943737184 (Legazpi) - 943726164 (Urretxu)  
zumarraga@uggasa.com - legazpi@uggasa.com - urretxu@uggasa.com







# Joxe Mari Iparragirre

**BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA**

Santa Barbara bidea z/g.

Telefonoa/fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13

[jmiparragirre@edunet.es](mailto:jmiparragirre@edunet.es)

[www.iparragirre.net](http://www.iparragirre.net)

20700 - URRETXU (Gipuzkoa)

## 2006-2007 ikasturterako eskaintza

**Unibertsitate eta lan mundura bideratutako eskaintza zabala**



OSASUN

ETA

NATUR

ZIENTZIEN

BATXILERGOA

GIZA

ETA

GIZARTE

ZIENTZIAK

BATXILERGOA

Izen-ematea:

Apirilaren 24tik maiatzaren 5era.

Matrikula:

Ekainaren 30etik uztailaren 6ra.

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**

**ERIZAIN LAGUNTZAILEA**


A eta D ereduak

Izen-ematea:

Ekainaren 1etik 7ra.

Matrikula:

Ekainaren 30etik uztailaren 6ra.



Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, zaharren egoitzetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

**Zure etorkizuna orain egingo duzun aukeraren eta ahaleginaren baitan dago**